

Koiuntura di-da batean

2018ko abendua

Aurkibidea

1. Hazkundera
 2. Enplegua
 3. Inflazioa
 4. Kanpo merkataritza
 5. Ingurunea
 6. ELGEren aurreikuspenak
- Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,6 hazi zen hirugarren hiruhilekoan.

Industriak bizitasuna galdu zuen, baina hala eraikuntza nola zerbitzuak sendo daude oraindik.

2. Enpleguaren hazkundera %2,0aren inguruan jarraitzen du.

Zerbitzuek berriro jaso dute lanaldi osoko lanpostuen kopuru errekorra .

3. Aldaketa gutxi kontsumoko prezioen bilakaeran.

KPI indizeak sei hileko kateatu ditu %2,0ko erreferentziaren gainetik.

4. Esportazioek beste marka bat ezarri dute.

Aurtengo urtarritetik irailera bitarteko salmenta metatua iazkoa baino %7,9 handiagoa da.

5. Europako ekonomiaren hazkundera moteldu da.

Hala ere, datuek oraindik egoera hedakor batean dagoela adierazten dute.

6. Beheranzko zuzenketa leuna munduko ekonomia-erentzat.

Merkataritza tentsioek eta finantza baldintza gogoragoek arriskuak areagotu dituzte.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDE

EAEko ekonomia %2,6 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

Barne produktu gordina


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek argitaratu duen informazioaren arabera, EAEko ekonomia %2,6 hazi zen 2018ko hirugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago. Beraz, bi epealdi kateatu ditu hazkunde txikiagoak jasoz. Moteltzeko joera leun hori ez da asko urruntzen Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurkeztu zuen aurreikuspenetik. Hala kontsumoa nola inbertsioa aurreko epealdian baino gutxiago hazi ziren. Lehen kasuan, azken kontsumoaren urte arteko tasa %2,0an kokatu zen, bigarren hiruhilekoko baino puntu erdi bat beherago. Apaltze hori batez ere kontsumo publikoan hauteman da, baina pribatuan ere bai, hiru hamarrenetan galgatu baitzuen bere erritmoa (%2,3). Beste aldetik, kapital eraketa gordinak zortzi hamarrenetan moteldu zuen bere gehikuntza, nahiz eta oraindik %4,0ko igoera eskuratu zuen.


Gastua azken kontsumoan

Urte arteko aldakuntza tasak




Kapital eraketa gordina


Urte arteko aldakuntza tasak



Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Sektoreen ikuspegiak bilakaera kontrajarriak uzten ditu jarduera nagusietan. Izan ere, industriak nabarmen gutxitu zuen bere urte arteko aldakuntza tasa (%1,9). Aitzitik, eraikuntzak aurreko hiruhilekoan erakutsi zuen susperraldi sendoari jarraipena eman zion. Tarteko leku batean, zerbitzuek %2,7 handitu zuten beren balio erantsia, 2016an eta 2017an eskuratutako emaitzetatik oso hurbil. Sektoreak egonkortasuna aurkeztu bazuen ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen atalak moteltzea erakusten du, 2017an jaso zuen %4,0aren inguruko tasetatik ezagutu den azken hiruhilekoan lortutako %2,5 arte.


Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Administrazio publiko, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



LAN MERKATUA


Enpleguaren hazkundeak %2,0aren inguruan jarraitzen du

Enplegu guztiaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Eustaten kontu ekonomikoek adierazi dute enplegua sendo areagotu zela 2018ko hirugarren hiruhilekoan, hain zuzen ere %2,0, aurreko datua baino hamarren bakar bat gutxiago. Beraz, azken urteetan hazi den %2,0aren inguruan segitzen du oraindik. Hori dela eta, azken urtebetean EAEko ekonomiak lanaldi osoko 18.700 lanpostu baliokide inguru sortu ditu. Ekonomia sektoreka aztertuta, lehen arloak urte arteko jaitsiera bizia jaso zuen, neurri batean 2017an uzta biketa ia hilabete oso bat aurreratu zelako, urte arteko alderaketak desitxuraturaz. Beste aldetik, eraikuntzaren enpleguak bere hazkunde erritmoa %3,8ra biziagotu zuen, aurreko balioetatik oso goitik baitago. Horri esker, sektore horren lanpostu kopurua 2.000 enplegutara handitu da, gutxi gorabehera, eta 60.000 lanpostuetara hurbildu da.

Enplegua lehen arloan
Urte arteko aldakuntza tasak




Enplegua eraikuntzan
Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat.

Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasa




Gehienetan, enpleguak denbora pixka bat behar du balio erantsiaren aldakuntzei erantzuteko, baina zerbitzuen kasuan bi aldagai horiek batera mugitu dira eta bai ekoizpena bai enplegua lau hamarrenetan moteldu dira urtea hasi zenetik. Hala ere, zerbitzuetan 13.000 lanpostu garbi sortu dira azken urtebetean eta serie historiko osoaren baliorik gorenak jaso dira berriro (lanaldi osoko 681.500 lanpostu)

Industriak ia ez du ezer aldatu bere hazkunde erritmoa eta berriro %1,8ko urte arteko tasa jaso du, azken urtebetean 5.400 lanpostu garbi sortuta. Dagoeneko, jarduera horrek 206.000 enplegu sortu ditu. Enpleguaren bilakaera on horren ifrentzua itxurazko produktibitatearen igoera txikia da, epealdi horretan hamarren bakar batera mugatu baita. Hala ere, datozen epealdietan hoberantz egingo duela espero da.


Enplegua zerbitzuetan

Urte arteko aldakuntza tasa



Gizarte Segurantzako afiliazioa

Urte arteko aldakuntza tasa




Jadanik ezagutzen den laugarren hiruhileko informazioak iradokitzen du enpleguaren erritmo galera ez dela oso bizia izango. Izan ere, Gizarte Segurantzaren urriko eta azaroko afiliazioak %2,1ko aldakuntza tasa jaso zuten batez beste, aurreko hiruhilekoko baino altuagoa, hirugarren hiruhilekoaren datua kaltetu zuen 2017ko uzta bilketa-aren aurreratzeak berak baldintzatuta. Hala ere, zerbitzuetako jardueren datuek adierazten dute aurreko erritmoari eusten diotela.

INFLAZIOA

Aldaketa gutxi kontsumoko prezioen bilakaeran

KPI indize orokorra

Urte arteko aldakuntza tasa



INEk argitaratu dituen datuen arabera, urrian EAeko KPI indizea %2,2an kokatu zen, hots, aurreko hilekoan baino hamarren bat gorago. Beraz, jadanik sei hileko eman ditu %2,0 baino gehiago hazten. Portaera horren oinarrian turismo paketeak daude, 2017an gehiago merkatu zirelako, eta baita petrolioaren salneurriaren garestitzea ere. Horrek ez zuen eraginik izan azpiko inflazioan, oso tasa apaletan (%1,2) jarraitzen baitu, baina hondar inflazioa tasa altuetan kokatzen du (%6,7).


KPIaren banaketa

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2016	2017	2018ko urria	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	0,0	2,0	2,2	2,2
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,9	1,1	1,2	1,0
- Elikagai landuak (%14,1)	0,9	0,0	1,0	0,2
- Industria ondasunak (%24,5)	0,8	0,3	0,1	0,0
- Zerbitzuak (%43,2)	1,1	1,7	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,2	6,5	6,7	1,2
- Landu gabeko janariak (%7,6)	2,6	3,7	2,2	0,2
- Energia (%10,6)	-8,2	8,2	10,2	1,0


Azpiko inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa

Urte arteko aldakuntza tasak



KPI erregairik gabe

Urte arteko aldakuntza tasa



Gasolioaren eta gasolinaren prezioak azken urtebetean %10 baino gehiago igo diren arren, pentsatzekoa da azaroko KPIan nabaritutako del Brent motako petrolioak nazioarteko merkatuetan ezagutu berri duen norabide aldaketa. Hain zuzen ere, lehengai horrek azken urteetako baliorik gorena urriko azken egunetan jaso zuen (86,4 dolar upeleko) eta harez geroztik ia 30 dolar merkatu da, azaroaren 23an 56,8 dolarretara jaitsi arte. Merkatze hori KPIra igaroko da aurtengo azken bi hilekoetan. Bitartean, petrolioaren eragin handiena pairatzen duten bi taldeek, hain zuzen ere, urte arteko tasa altuenak jaso zituzten. Alde batetik, garraioa %5,2 garestitu da EAEn azken urtebetean, Espainian (%5,7) eta Eurogunean (%4,9) eskuratu diren tasetatik hurbil. Beste aldetik, etxebizitzak %4,2ko gehikuntza tasa izan du, aipatu diren bi lurralde horietan antzeko zenbakiak jaso diren bitartean. Bi talde horiez gain, jatetxeak eta hotelak (%2,6) eta edari alkoholodunak eta tabakoa (%2,5) taldeek ere igoera garrantzitsuak izan dituzte, gainontzeko taldeetan apaltasuna hautematen den bitartean.


KPIaren talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko urria

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,2	2,3	2,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,2	1,7	1,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,5	2,1	4,4
Jantziak eta oinetakoak	1,3	1,0	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,2	4,0	3,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,7	0,3	0,5
Medikuntza	0,6	0,4	0,8
Garraioa	5,2	5,7	4,9
Komunikazioak	2,2	2,0	-1,5
Aisia eta kultura	-0,5	0,0	1,0
Hezkuntza	0,9	0,7	-0,1
Jatetxeak eta hotelak	2,6	1,9	1,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,1	1,1	1,7

KANPO MERKATARITZA

Esportazioek beste marka bat ezarri dute

Esportazio ez-energetikoen hazkundera. Milioi euro
 Urtarrietik irailera bitarteko balio metatua


Iturria: Eustat.


Eustatek atzerriarekin salerositako ondasunen iraileko datuak argitaratu ditu. Horri esker, aurtengo lehen bederatzi hilekoetako bilakaeraren ikuspegi zehatza daukagu. Estatistika horren arabera, EAEko enpresek 19.115 milioi euro baino gehiago balio zuten ondasunak esportatu zituzten epealdi horretan, 2008an lortutako maximoaren ondoren bigarren kopuru handiena baita. Urte arteko tasatan neurtuta, %7,9ko hazkunde eskuratu zen. Beste aldetik, energiaz bestelako salmenten diru kopuruak 17.300 milioi euroak gainditu zituen, gaur arte inoiz lortu den altuena, aurreko emaitza baino %7,1 handiagoa delarik. Bi kasuetan, EAEko nazioarteko merkataritza Estatuarena baino nabarmen gehiago hazi da.

SALMENTEN ESPORTAZIOAK
 Urtarril-iraila. Urte arteko aldakuntza tasak


	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Esportazioak guztira									
Euskadi	21,2	18,4	-2,6	2,6	7,3	-0,9	-1,0	10,2	7,9
España	16,0	18,2	4,0	5,6	1,1	4,0	2,2	8,1	3,2
Esportazio ez energetikoak									
Euskadi	21,5	16,9	-1,0	0,2	3,2	1,4	3,6	8,3	7,1
España	15,6	16,4	3,1	5,6	0,8	6,7	3,9	6,1	2,2

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (Datacomex).

Esportazio guztiak helburuaren arabera



Esportazio ez-energetikoen banaketa




EAEko kanpo merkataritzak bizitasunari eutsi zion, beraren bazkide nagusiak, hots, Europako ekonomiak, moteltze garbia ezagutu zuen arren. Izan ere, Europar Batasunak guztizkoaren %65,4 bereganatzen du eta bertan saldutakoa %8,2 areagotu zen, eremu nagusi guztietan esportazioak hazi zirelako. Berrito ere, hazkunde hori metal arrunten eta beren manufakturen (%9,7) eta ekipamendurako ondasunen (%5,3) salmentan oinarritu zen, bi atal horiek pisu handiena baitute.

Inportazioek ere joera dinamikoa erakutsi zuten (%8,1 hazi ziren guztira eta %7,2, berriz, energiaz bestelakoak), sektore kimikoak behera egin zuen arren. Aurreko guztiaren ondorioz, bederatzi hileko horien saldo garbia positiboa izan da eta 4.088 milioi eurotik gorako merkataritza superabita ekarri du. Energia alorreko produktuak ez badira kontuan hartzen, energiaz bestelako saldoak ia 6.476 milioi euroko saldoa utzi du, aurrekaririk gabeko zenbatekoa baita.


Saldoa guztira. BPGaren %a

Urtariletik irailera bitartean



Saldo ez-energetikoa. BPGaren %a

Urtariletik irailera bitartean




Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioa (Datacomex).


EUROPAKO HAZKUNDEA

Europako ekonomiaren hazkundera moteldu da

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Eurostateg argitaratu duen informazioak baieztatzen du Europako ekonomia motelaldi batean sartuta dagoela. Hain zuzen ere, hirugarren hiruherenekoan BPGaren hazkundera tasa %1,9an kokatu zen Europar Batasunean eta %1,7an, berriz, Eurogunean. Bi kasuetan, laugarren hiruhereneko jarraian hazkundera tasa gutxitu da. Erritmo galera horrek ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakundeen emaitzak baieztatzeko balio du, 2018rako zein 2019rako hazkundera aurreikuspenak gutxitu zituztelako. Azken hiruhereneko datuek espero zena baino bilakaera ahulxeagoa erakutsi zuten arren, oro har, hazkundera tasa bat datoz hedatzen ari den ekonomia baten irudiarekin eta inflazioaren gehikuntza gradual batekin. Beraz, oraingoz ez da atzeraldirik aurreikusten.

Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Italiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Portugaleko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak




Alemanian, isurketen araudi berriak automobilen ekoizpenean ekarri duen eten iragankorrak eta merkataritza alorreko tentsioen ondorioz esportazioek izan duten ahultzeak herrialde hartako BPGa %1,2an kokatu zuten urte arteko tasan, %-0,2an, berriz, hiruhileko arteko tasan neurtzen bada, 2015etik izan duen lehen uzkurdura baita. Frantziak ere indarra galdu zuen aurreko emaitzaren aldean. Kasu horretan, moteltze orokorra bizi zen, BPGaren osagai guztiek hazkunde txikiagoa jaso zutelako. Italian, barne eskariaren eta kanpo merkataritzaren ahultasunak eragin zuen apaltzea. Portugalen, berriz, kanpo eskariaren ekarpenak azaltzen du tonu galera txikia, hutsala izatetik negatiboa izatera pasa zelako.

Brexitaren negoziatioek sortu duten ziurgabetasuna handia bada ere, Erresuma Batuak %1,5 haztea lortu zuen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago, eta apiriletik ekainera bitartean hasi zen goranzko joerari jarraipena eman zion. Kontsumo pribatuaren bultzadak eta inbertsioaren susperraldiak, zenbaki gorriak atzean utzi baitzuten, azaltzen dute gorakada hori.


Herbehereetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak




ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Beharazko zuzenketa leuna munduko ekonomiarentzat

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekonomiako lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomia %3,7 haziko da 2018an eta %3,5era motelduko da 2019-2020 biurtekoan. Aurreikuspen berri horiek beherantz zuzendu dituzte munduko ekonomia garrantzitsu gehienek emaitzak, maiatzean argitaratu ziren aurreikuspenekin alderatuta. Beharazko zuzenketa hori ekonomiaren testuinguruan agertu diren arrisku handiagoetan oinarritzen da. Bestek beste, merkataritza alorreko tentsioak, ziurgabetasun politikoa eta finantzaziorako baldintzen gogortzea aipatu behar dira.


ELGE-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak				Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2017	2018	2019	2020	2018	2019
Munduko ekonomia	3,6	3,7	3,5	3,5	-0,1	-0,4
AEB	2,2	2,9	2,7	2,1	=	-0,1
Eurogunea	2,5	1,9	1,8	1,6	-0,3	-0,3
Alemania	2,5	1,6	1,6	1,4	-0,5	-0,5
Espainia	3,0	2,6	2,2	1,9	-0,2	-0,2
Frantzia	2,3	1,6	1,6	1,5	-0,3	-0,3
Italia	1,6	1,0	0,9	0,9	-0,4	-0,2
Erresuma Batua	1,7	1,3	1,4	1,1	-0,1	-0,1
Kanada	3,0	2,1	2,2	1,9	=	=
Japonia	1,7	0,9	1,0	0,7	-0,3	-0,2
Txina	6,9	6,6	6,3	6,0	-0,1	-0,1
India	6,7	7,5	7,3	7,4	0,1	-0,2
Brasil	1,0	1,2	2,1	2,4	-0,8	-0,7


AEBetako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa




Espainiako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Munduko BPGaren hazkundera sendoa da oraindik. Hala ere, merkataritza globalaren eta inbertsioaren galgatzeak alertak piztu ditu. Orobat, kapitalen ihesa eta azaleratzen ari diren ekonomia batzuetako diruak pairatu duen ahultzea kontuan hartu behar dira.

Bere txostenean, ELGEk hazkundeari eusteko bideratuta dauden politika hobeen beharra aipatzen du. Halaber, lanpostuen kopurua areagotzea, bizi maila hobetzea eta, oro har, eragileen konfiantza handitzea beharrezkotzat jotzen du. Berezik, Europako moneta batasuna osatzeko garrantzia nabarmendu du, ekonomia zurrumbiloen aurrean neurriak hartzeko margen gehiago emango baitzuen.

Txinako BPGa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,3	2,9	3,0	3,0	3,1	2,9	2,6
Familien kontsumoa	3,3	3,0	3,0	2,9	2,9	2,6	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,4	2,5	2,7	2,6	2,0	1,2
Kapital eraketa gordina	5,5	3,3	2,8	3,7	3,7	4,8	4,0
Barne eskaria	3,6	3,0	2,9	3,0	3,0	3,0	2,5
Esportazioak	1,8	4,7	5,6	6,8	6,7	2,9	2,2
Inportazioak	2,2	4,8	5,4	6,9	6,4	3,1	2,1
Lehen arloa	1,0	6,8	9,6	-2,7	-3,0	0,8	-4,6
Industria	4,2	3,1	3,0	3,5	3,7	3,1	1,9
Eraikuntza	0,2	3,8	4,7	4,0	2,7	4,1	4,8
Zerbitzuak	2,8	2,7	2,8	2,7	3,1	2,8	2,7
Balio erantsi gordina	3,0	2,9	3,0	2,9	3,1	2,9	2,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,8	2,8	2,7	3,3	3,1	2,8	2,6

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018		2019				2018	2019
	III	IV	I	II	III	IV		
BPG	2,7	2,6	2,4	2,3	2,2	2,2	2,8	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,4	2,4	2,1	2,1	2,1	2,0	2,5	2,1
Familien kontsumoa	2,4	2,4	2,2	2,2	2,1	2,0	2,6	2,1
Administrazioaren kontsumoa	2,0	2,1	1,8	1,7	1,9	1,8	2,2	1,8
Kapital eraketa gordina	3,9	3,6	3,3	2,9	2,9	2,7	4,0	3,0
Barne eskariaren ekarpena	2,8	2,8	2,5	2,4	2,3	2,3	2,9	2,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,2	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Lehen arloa	-4,4	-7,2	-6,5	-3,8	-8,2	7,9	-3,4	-2,7
Industria	3,0	2,7	2,6	2,4	2,2	2,0	3,1	2,3
Eraikuntza	2,5	2,1	2,1	1,9	1,8	1,5	2,9	1,8
Zerbitzuak	2,8	2,8	2,6	2,5	2,5	2,3	2,8	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,6	2,5	2,3	2,3	2,2	2,9	2,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,5	2,4	2,2	2,2	2,0	2,0	2,7	2,1
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,4	1,4	1,2	2,0	1,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
Funcas	3,3	2,7	BBVA	2,6	2,7
Laboral kutxa	3,0	2,5	CEPREDE	2,6	2,6
Confebask	2,9	—	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,6	2,1

Iturria: CEPREDE (2018ko urria), BBVA (2018ko azaroa), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2018ko uztailea), Funcas (2018ko azaroa) eta Hispalink (2018ko uztailea).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
BPG	3,2	3,0	2,9	3,1	2,8	2,5	2,5
Kontsumo pribatua	2,8	2,5	2,6	2,7	3,1	2,3	2,1
Kontsumo publikoa	1,0	1,9	2,0	2,6	2,4	1,9	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,9	4,8	5,8	5,2	3,9	7,7	6,3
- Aktibo finko materialak	2,7	5,1	6,0	5,6	4,0	8,5	7,2
- Eraikuntzan	1,1	4,6	5,7	4,8	5,7	7,0	5,7
- Ekipamendu ondasunetan	5,2	6,0	6,4	6,7	1,8	10,8	9,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	3,5	4,5	3,1	3,1	2,8	1,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,4	2,9	3,2	3,3	3,1	3,3	3,0
Esportazioak	5,2	5,2	5,4	4,2	3,4	2,3	0,4
Inportazioak	2,9	5,6	7,0	5,4	4,7	5,2	2,0

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2018	2019		2018	2019
AFI	2,6	2,3	Intermoney	2,5	2,2
Axesor	2,6	2,4	Repsol	2,5	2,1
BBVA	2,6	2,4	Santander	2,5	2,1
Bankia	2,7	2,3	Solchaga Recio & asociados	2,5	2,2
CaixaBank	2,5	2,1	BATEZ BESTE	2,6	2,2
Cemex	2,5	2,3	Gobernua (2018-10)	2,6	2,3
CEEM-URJC	2,6	2,1	Espainiako Bankua (2018-09)	2,6	2,2
CEPREDE-UAM	2,6	2,3	Europar Batzordea (2018-11)	2,6	2,2
CEOE	2,6	2,3	NDF (2018-10)	2,7	2,2
FUNCAS	2,6	2,2	ELGE (2018-11)	2,6	2,2
ICAE-UCM	2,6	2,4	The Economist (2018-10)	2,7	2,2
IEE	2,6	2,2	Consensus Forecast (2018-11)	2,6	2,2

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2017		2018		
			III	IV	I	II	III
AEB	1,5	2,3	2,3	2,5	2,6	2,9	3,0
Txina	6,7	6,9	6,8	6,8	6,8	6,7	6,5
Japonia	0,9	1,7	2,0	2,0	1,1	1,4	0,4
Kanada	1,4	3,0	3,1	3,0	2,3	1,9	—
Europar Batasuna	2,0	2,4	2,8	2,6	2,3	2,1	1,9
Eurogunea	1,9	2,4	2,8	2,7	2,4	2,2	1,7
Alemania	2,2	2,2	2,7	2,8	2,0	1,9	1,2
Frantzia	1,2	2,2	2,7	2,8	2,2	1,7	1,5
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,8	1,4	1,1	1,2	1,5
Italia	1,1	1,6	1,7	1,6	1,3	1,2	0,8
Herbehereak	2,2	2,9	3,0	3,1	3,1	2,9	2,3

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko azaroa

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AEB	2,9	2,7	2,5	2,3	3,9	3,5
Japonia	1,0	1,1	1,0	1,1	2,4	2,4
Kanada	2,0	2,0	2,3	2,1	5,9	5,8
Europar Batasuna	2,0	1,8	1,9	1,9	—	—
Eurogunea	2,0	1,7	1,8	1,7	8,2	7,8
Alemania	1,8	1,6	1,9	1,9	5,2	5,0
Frantzia	1,6	1,6	2,0	1,7	8,8	8,5
Erresuma Batua	1,3	1,5	2,5	2,2	4,1	4,1
Italia	1,0	0,9	1,3	1,4	10,6	10,2
Espania	2,6	2,2	1,8	1,6	—	—
Herbehereak	2,8	2,2	1,6	2,2	—	—

Iturria: Consensus Forecast.